

Erronkari buruzko fitxa

SPRI

Nola **ebalua genezake EJ-GV/SPRIren laguntza-programen inpaktua, barne-datuak automatikoki aterata, horiek bistaratuta eta aztertuta eta ezagutzen ez diren kanpo-iturriak integratuta, joerak identifikatzeko eta ondorioak ateratzeko?**

Azpi-erronkak:

- Nola lor eta antola genezake eskura dugun informazioa modu automatizatuan?
- Nola bistaratu eta azter genitzake aurreko eta oraingo datuak?
- Nola sar genitzake kanpoko datuak aurreko eta oraingo azterketetan, joerak identifikatzea eta ondorioak sortzea ahalbidetzeko?

Testuingurua:

SPRIk, EGA (Eskualde Garapeneko Agentzia) gisa, laguntza-programak kudeatzen ditu zenbait esparrutan. Erronkaren helburu nagusia da programa horien inpaktua modu automatizatuan neurtzea, eredu analitikoetan oinarrituta.

Gaur egun, azterketa urteko txosten estatiko baten bidez egiten da, adierazleak neurtzera bideratua, "inpaktuaren ebaluazioaren" sakontasuna mugatuz.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- Eskura dagoen informazioa ahalik eta modu automatizatuenean ustiatzea.
- Informazioarekin elkarrengaritea eta hainbat analisi motatarako erabiltzea.
- Inpaktuaren ebaluazioari buruko bestelako kanpo-informazioa txertatzea.

Zeren bila gabilta?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Erraz ezartzeko modua izan behar du.
- Hainbat erabiltzaile-profilen bidez ustiatzeko modukoa izan behar du, atazen edo erantzukizunen arabera.
- Irtenbide automatizatua izan behar du eta datuak denbora errealean eskaini behar ditu.
- Datuaren balio-kate osoan eragin behar du.

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan. [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.

- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.